

MENDEBALDEA

BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Familia agurgarria:

Matrikula egin ondoren, izan zaitetzte ongi etorriak **2022/2023** ikasturte berrira. Aurkezpena datorren **irailaren 8an** egingo dugu honako ordutegiarekin:

- 1. DBHko ikasleak 10:30etan.
- 2. DBHko ikasleak:11:00etan.
- 3. eta 4. DBHko ikasleak:11:30etan.
- Batxilergoko ikasleak: 12:00etan.
- ZIG eta IE geletako ikasleek ez dute aurkezpenarik izango.

Egun horretan bertan “**Ikasmaterialen Programa**”, **Liburu solidario** ohia, duten ikasleek liburuak jasoko dituzte. Programa honetako ikasleei motxila ekartzea gomendatzen zaie, liburuak eraman ditzaten.

Eskolak **irailaren 9an, ostirala**, hasiko dira. **Eskolak** aurrez aurrekoak izango dira, **goizez eta ordutegi jarraian, irailetik ekainera**.

Ikasturteko etapa eta/edo maila bakoitzaren **ordutegiak** honako hauek izango dira:

- **DBHko ikasleak:** 8:15ean sartuko dira eta 14:15ean aterako dira.
- **BATX 1. mailako ikasleak:** astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan 8:15etik 15:10era, ostiraletan 8:15etik 14:15era.
- **BATX 2. mailako ikasleak:** astelehen, astearte eta ostegunetan 8:15etik 15:10era, asteazken eta ostiraletan 8:15etik 14:15era.

Urriaren 1etik aurrera jantoki-zerbitzua eta HEDAUSPO programako (HAUSPOA zena) jarduerak arratsaldez hasiko dira.

DBHko 1. mailako ikasleen taldeen zerrendak irailaren 7an egongo dira ikusgai, eta ikastetxearen sarreran kontsultatu ahal izango dituzue.

Jaso ezazue agur bero bat.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 2an.

ZUZENDARITZA

OHARRA:

Ikastetxe honek gurasoei honako hau jakinarazten die: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005), ikastetxean uste bada ikasleen babesgabetasun-egoeraren aztarnak daudela, hau da, zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, zentroak horren berri eman beharko die derrigorrean gizarte-zerbitzuei. Hala egiten denean, eragindako ikaslearen familiari jakinaraziko zaio.